

## DBUS-EKO LAN ARRISKUEN PREBENTZIOKO POLITIKA

DONOSTIAKO TRANBIAREN KONPAINIA-Dbuseko Zuzendaritzak, bere langileen segurtasunarekin eta osasunarekin berez duen kezka berran, Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan Legeak ezarritako aginduak bete nahi ditu, eta, horrez gain, etengabe hobetzeko eta Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistema betetzeko konpromisoa hartzen du, sistemaren hobekuntzaren buru izanik, horrekin guztiarekin hau lortzeko:

- Prebentzioaren arloan aplikatzekoak diren lege eta erregelamenduetan ezarritako agindu guzti-guztiak eta erakundeak izenpetzen dituen beste betekizun batzuk ere betetzea.
- Lan baldintza seguruak eta osasungarriak ematea, lanarekin lotura duten osasun kalteak eta narriadurak prebenitzeko.
- Istripu eta gaixotasun profesionalen arriskuak murriztea edo ezabatzea
- Langileen segurtasunerako eta osasunerako arriskuak kontrolatzeko sistema bat ezartzea
- Erakunde osoak prebentzioko baldintza eta lege baldintza guztiak betetzeko konpromisoa hartzea lortzea, langileen informazioaren, prestakuntzaren, kontsultaren eta parte hartzearen bidez.
- Erabilitako prozesuak, teknikak eta lehengaiak aztertzea, eta langileei arrisku gutxien sortzen dizkietenak aukeratzea.
- Prebentzio jarduerak garatzeko behar beste baliabide esleitzea.
- Laneko arriskuen prebentzioaren arloan kultura positiboa sortzea.
- Langileen eta langileen ordezkarien parte hartzea sustatzea LAPa kudeatzeko sistemaren erabakiak hartzeko prozesuetan.

Lan Arriskuen Prebentzioaren arloko helburuak ezartzeko erreferentzia esparrua ezartzen du politika honek.

Donostia, 2021eko urtarrilaren 18a



Igor Gonzalez, Dbuseko zuzendari gerentea